

Etxeetan informazioaren eta komunikazioen teknologiak eta merkataritza elektronikoa erabiltzeari buruzko inkesta
2023. urtea

Azken hiru hilabeteetan, 16 urtetik 74 urtera bitarteko biztanleriaren % 96,0k erabili du Internet

Azken 12 hilabeteetako Interneteko erabiltzaileen % 77,6k erosketa elektronikoren bat egin dute

Azken hiru hilabeteetako Interneteko erabiltzaileen % 69,4k oinarrizko trebetasun digitalak edo aurreratuak dituzte

2024ko martxoaren 25a

Gutxienez 16 eta 74 urte bitarteko kide bat duten etheen % 86,8k ordenagailuren bat dute (mahai gainekoa, eramangarria, tableta...). Gailu motaren arabera, % 81,8k mahai gaineko ordenagailuak edo eramangarriak dituzte, eta % 57,4k tabletaren bat.

Azken 12 hilabeteetako Interneteko hamar erabiltzailetik ia bederatzi administrazio edo zerbitzu publikoekin Internet bidez jarri dira harremanetan edo aritu dira interakzioan arrazoi partikularrengatik



ETXEAK

IKT produktuak


Gutxienez 16 eta 74 urte bitarteko kide bat duten etheen % 86,8k ordenagailuren bat dute (mahai gainekoa, eramangarria, tableta...). Gailu motaren arabera, % 81,8k mahai gaineko ordenagailuak edo eramangarriak dituzte, eta % 57,4k tabletak.

la etxe guztietan dago telefono mugikorra (% 99,5). Bestalde, telefono finkoak behera egiten jarraitzen du, eta familien % 64,7tan dago eskuragarri: 2022an baino 2,6 puntu gutxiago.

Familiën % 64,2k telefono-terminal mota biak dituzte. % 0,5ek finkoa baino ez dute, eta % 35,3k mugikorra soilik erabiltzen dute etxetik komunikatzeko (2022an, berriz, % 32,5ek).

1. GRAFIKOA

IKT ekipamenduaren bilakaera etxeetan (%)



Iturria: Geuk egina, IKTen eta familiën inkestako datuetan oinarrituta. (EIN).



Internetarako sarbidea


Gutxienez 16 eta 74 urte bitarteko kide bat duten etxeen % 96,2k (2022an % 96,4k) Internetarako sarbidea dute banda zabal finko eta/edo mugikor bidez, eta % 3,8k soilik dio ez duela Internet. Banda zabaleko konexio mota nagusia modalitate finkoen bidezkoa da (zuntz optikoa edo kable sarea, ADSLa...), etxeen % 86,7tan baitago (mugikor bidezko konexioa ere baduten alde batera utzita). Bestalde, % 13,3 konexio mugikorraren bidez soilik sartzen dira Internetera (3G, 4G, 5G...).

Bilakaera eta Espainiarekiko konparazioa

Teknologia berrien ezarpenak gora egin du azken urteotan, bai ordenagailuari dagokionez, bai Interneteko konexioei dagokionez. Mugikorraren erabilera berekin ekartzen ari da telefonia finkoak behera egitea (telefono finkoaren presentzia ehuneko 18,6 puntu murriztu da 2011 ezkerotik). Banda zabalak, berriz, etxeetako Internetarako ia konexio guztiak hartzen ditu.

2. GRAFIKOA

IKT ekipamenduaren bilakaera etxeetan
2011-2023 bitartean (%)



Iturria: Geuk egina, IKTen eta familien inkestako datuetan oinarrituta. (EIN).



Datuak Espainia osoarekin alderatuz gero, ikus daiteke Nafarroako etheen ehunekoa Estatuko batez bestekoaren berdina edo handiagoa dela ekipamendu informatikoari eta telekomunikazioei dagokienez (ordenagailua izatea, telefono finkoa eta telefono mugikorra). Interneterako sarbidea eta banda zabalaren bidezko konexioa, berriz, Estatuko batez bestekoa baino 0,2 puntu baxuagoa da.

1. TAULA

IKT ekipamendua etxeetan, autonomia-erkidegoen arabera 2023. urtea (%)

	Edozein motatako ordenagailuak: netbook-ak, tabletak, eskuko ordenagailuak, etab. barne.	Interneterako sarbidea duten etxebizitzak	Banda zabaleko konexioa duten etxebizitzak	Telefono finkoa duten etxebizitzak	Telefono mugikorra duten etxebizitzak
Nazionala guztira	82,6	96,4	96,4	57,5	99,5
Andaluzia	79,1	95,9	95,9	48,9	99,5
Aragoi	84,1	97,5	97,5	66,0	100,0
Asturiasko Printzerria	81,1	96,4	96,4	52,3	99,6
Balears, Illes	84,4	97,3	97,3	56,2	99,5
Kanariak	81,3	97,1	96,9	66,4	99,3
Kantabria	81,0	95,6	95,6	58,6	99,3
Gaztela eta Leon	79,7	93,8	93,8	65,3	98,5
Gaztela-Mantxa	77,8	95,8	95,8	50,7	99,4
Katalunia	86,1	97,1	97,1	63,6	99,4
Comunitat Valenciana	82,6	97,1	97,1	42,3	99,8
Extremadura	74,8	93,3	93,3	45,9	99,6
Galizia	80,0	94,4	94,2	57,3	99,0
Madrilgo Erkidegoa	87,9	97,7	97,6	70,4	99,7
Murtziako Eskualdea	79,4	97,0	97,0	39,3	99,7
Nafarroako Foru Komunitatea	86,8	96,2	96,2	64,7	99,5
Euskal Autonomia Erkidegoa	84,0	96,6	96,6	66,7	99,4
Errioxa	83,9	96,1	96,1	63,5	99,4
Ceuta	68,8	95,5	95,5	67,2	100,0
Melilla	84,0	98,5	98,5	56,3	100,0

Iturria: Geuk egina, IKTen eta familien inkestako datuetan oinarrituta. (EIN).

Oharra: Koloreek Nafarroako egoera adierazten dute batezbesteko nazionalarekiko (berdez batezbestekotik gora eta gorrix batezbestekotik behera).



BIZTANLERIA

IKTen erabilera

16 eta 74 urte bitarteko nafarren % 97,1ek erabili dute noizbait Internet, eta % 96,0k azken hiru hilabeteetan. Konektatzeko aukera egoteak ez du esan nahi konexioa egin denik edo maiztasun-maila jakin batekin egiten denik. Azken hiru hilabeteetan, erabiltzaileen % 91,0 egunero sartzen dira sarean egunean behin baino gehiagotan, % 3,1 egunero edo ia egunero sartzen dira (baina ez egunean behin baino gehiagotan), % 5,6 gutxienez astean behin, baina ez egunero, eta % 0,3 astean behin baino gutxiagotan.

Azken hiru hilabeteetan sarearen erabilera unibertsala da 25 eta 34 urte bitartekoen artean, eta ia unibertsala 16 eta 24 urte bitartekoetan eta 35 eta 64 adin-tartean, eta minimora 65 eta 74 urte bitartekoen taldean iristen da (% 86,9). Amaitutako ikasketa-mailari dagokionez, ikasketa-maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta maizagoa da Internetarako konexioa.

2. TAULA

Interneten erabilera eta erabilera-maiztasuna adin-tarteen arabera
2023. urtea (%)

	Internet noizbait erabili du	Internet azken hiru hilabeteetan erabili du	Egunean hainbat aldiz	Egunero edo ia egunero, (baina ez egunean behin baino gehiagotan)	Astean behin, gutxienez, baina ez egunero	Astean behin baino gutxiagotan
Guztira	97,1	96,0	91,0	3,1	5,6	0,3
Adin taldekatua						
16-24	100,0	98,4	100,0	0,0	0,0	0,0
25-34	100,0	100,0	97,6	2,4	0,0	0,0
35-44	97,7	97,7	95,3	2,7	1,6	0,5
45-54	98,2	96,8	93,0	4,8	2,1	0,0
55-64	96,0	95,2	86,4	2,4	10,8	0,4
65-74	90,2	86,9	69,9	6,0	22,7	1,4

Iturria: Geuk egina, IKTen eta familien inkestako datuetan oinarrituta. (EIN).

Azken hiru hilabeteetan gehien egindako jardueren artean, komunikazioarekin lotutako jarduerak daude (Interneten erabiltzaileen % 99,4k azken hiru hilabeteetan). Horien artean nabarmentzen dira *Berehalako mezularitza-zerbitzuak erabiltzea* (WhatsApp...) –% 98,1–, *Mezu elektronikoak jasotzea edo bidaltzea* (% 87,2) edo *Bideodeiak egitea* (% 77,4).



Horien atzetik daude informazioarekin lotutako jarduerak (azken hiru hilabeteetako Interneten erabiltzaileen % 92,2), Internet bidezko banka erabiltzea (% 74,0), hezkuntza (% 50,9), parte-hartze politiko eta soziala eta enplegua bilatzea (bien kasuan % 20,5) eta ondasunen eta zerbitzuen salmenta (% 17,6).

3. GRAFIKOA

Azken hiru hilabeteetan gauzatutako jarduerak. Interneten erabiltzaileak
2023. urtea (%)




Arrazoi partikularrengatik Interneten gehien erabiltzen diren zerbitzuak zehatzago aztertzen baditugu, gizonak eta emakumeek bat egiten dute. Lehenengoa *Berehalako mezularitza* da, eta ondoren datoz *Posta elektronikoa*, *Online egunkariak edo gaurkotasuneko aldizkariak irakurtzea*, *Internet bidez telefonoz deitzea edo bideodeiak egitea* eta *Ondasunei edo zerbitzuei buruzko informazioa bilatzea*. Alde handiena *Osasun-gaiei buruzko informazioa bilatzea* atalean dago, arlo horretan emakumeak gizonak baino zaleagoak baitira (gizonek baino 16,4 puntu gehiago), baita honako haueetan ere: *Online-ikastaroren bat egitea* (13,7 puntu gehiago) edo *Audio- edo bideo-tresnen bidez hezitzaileekin edo ikasleekin komunikatzea* (13,3 puntu gehiago).



4. GRAFIKOA

Azken hiru hilabeteetan gehien erabilitako zerbitzuak, gauzatutako jarduera motaren eta sexuaren arabera
2023. urtea (%)



Iturria: Geuk egina, IKTen eta familien inkestako datuetan oinarrituta. (EIN).

IKTen erabilera sexuaren arabera

Genero-arrakala digitala aztertzen badugu (gizonen eta emakumeen arteko puntu portzentualen aldea IKTen erabileraren adierazleetan), jarraitu egiten du Interneten erabileraren joerak, 2022an hasitakoak, eta aldatu egiten da erosketen elektronikoen azken hiru hilabeteetako joera, aurreko urtearekin alderatuta. Hala, hurrengo taulan eta hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, gizonen gehiago erabili dute Internet emakumeek baino (% 96,0 eta % 95,9, hurrenez hurren), eta egunero sarean nabigatzen duten eta azken hiru hilabeteetan erosketak egin dituzten emakumeen ehunekoa gizonena baino handiagoa da (% 89,9 eta % 90,6 eta % 56,1 eta % 58,2, hurrenez hurren).



3. TAULA

Interneten erabilera eta erabilera-maiztasuna, sexuaren arabera
2023. urtea (%)


	Interneten erabilera azken 3 hilabeteetan		Egunero (astean 5 egunetan gutxienez)		Internet bidezko erosketak (azken hiru hilabeteak)	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
2019	94,5	95,4	79,5	81,0	54,7	54,7
2020	94,7	96,1	83,2	82,1	55,7	62,2
2021	93,5	93,8	83,1	89,0	53,7	60,4
2022	96,1	94,6	88,0	88,6	58,4	57,8
2023	96,0	95,9	89,9	90,6	56,1	58,2

Iturria: Geuk egina, IKTen eta familien inkestako datuetan oinarrituta. (EIN).

Oharra: 16 eta 74 urte bitarteko biztanleria osoaren gainean kalkulaturako ehunekoak.

5. GRAFIKOA

Genero-arrakala digitalaren bilakaera
2020-2023 bitartean (gizonen % – emakumeen %)



Iturria: Geuk egina, IKTen eta familien inkestako datuetan oinarrituta. (EIN).

Trebetasun digitalak eta ezagutza informatikoak

Azken hiru hilabeteetan, Interneten erabiltzaileen % 69,4k oinarritzko trebetasunak edo aurreratuak dituzte, 2021ean baino 8,0 puntu gehiago. Sexuaren arabera, emakumeen ehunekoak gizonena baino 1,2 puntu handiagoa da, eta 2021ean 8,8 puntu, eta adin-taldearen arabera, adinak behera egin ahala handiagoa da oinarritzko trebetasun digitalak edo aurreratuak dituzten pertsonen ehunekoak. Ehuneko horrek gora egiten du ikasketa-maila handiagoa den heinean.



Gehiago banakatuz gero, ikusten da % 30,8k oinarritzko trebetasunak dituela (2021ean % 23,4k) eta % 38,6k aurreratua (edo handiagoak), eta 2021ean % 38,0k.

Ezagutza informatikoei dagokienez, azken hiru hilabeteetan, Interneten erabiltzaileen % 78,1ek mugikorrek eta ordenagailuekin egindako jarduerak egin zituzten, eta % 68,3k informatikarekin lotutako jarduerak. Jarduera horien artean nabarmentzen dira fitxategiak kopiatzea, mugitzea edo transferitzea (adibidez, posta elektronikoa, WhatsApp, USB... bidez) karpeta batetik bestera edo hodeian (% 67,9); softwarea edo app-ak jaitea edo instalatzea (% 62,5), eta testu-prozesatzaile bat erabiltzea (% 54,3). Azken hiru hilabeteetan, Interneten erabiltzaileen % 80,8k adierazi zuten Interneten informazio pertsonalerako sarbidea kudeatzeko planteatutako ekintzetako batzuk egin zituela.

Konfiantza-mailari dagokionez, azken hiru hilabeteetan, internauten % 33,5ek konfiantza gutxi edo batere ez dute Interneten, % 62,2k nahikoa eta % 4,4k handia. Emakumeek gizonak baino konfiantza handiagoa dute. Eta, orokorrean, gazteek helduek baino handiagoa.

Administrazio elektronikoa

Azken 12 hilabeteetan, Interneten hamar erabiltzailetatik ia bederatzia administrazio edo zerbitzu publikoekin Internet bidez jarri dira harremanetan edo aritu dira interakzioan arrazoi partikularrengatik.

Adinaren arabera, 25 eta 34 urte bitartekoak aritzen dira interakzioan neurri handiengan, eta, sexuaren arabera, emakumeak % 85,4 eta gizonak % 82,6.

Tramite ohikoenak honako hauek izan dira: % 68,7 interakzioan aritu dira informazioa eskuratzeko, % 53,7k zita edo erreserba hitzartu dituzte, % 43,0k inprimaki ofizialen bat deskargatu edo inprimatu dute, % 41,1ek agiriak lortzearekin lotutako interakzioen bat egin dute eta % 22,6k errenta-aitorpena webgunean aurkeztu dute.

Aitzitik, azken 12 hilabeteetan, Interneteko erabiltzaileen % 5,9k ez dute dokumentu ofizialik edo erreklamaziorik eskatu, eskatzeko beharra izanik. % 52,9k diote beste pertsona batek tramitatu duela Internet bidez bere izenean, eta hori izan da arrazoi nagusia.

Telelana ⁽¹⁾

16 eta 74 urte bitarteko biztanleria okupatuaren % 12,9k adierazi du telelana egin duela elkarriketaren aurreko astean. Bestalde, % 18,4k adierazi dute ez dutela egin, beren lanak horretarako aukera ematen bazien ere, eta gainerako % 68,8k ere ez dute egin, nahiz eta kasu horretan beren lan motak ez zielako utzi urrutitik lan egiten.

Sexuaren arabera, gizonak emakumeak baino gehiago aritu dira telelanean (% 14,5 eta % 10,9 hurrenez hurren).



Telelanean ari diren pertsona okupatuaren ehunekorik handienak ikasketak (% 24,0k goi-mailako ikasketak dituzte, eta, aitzitik, % 4,9k bigarren mailako ikasketak, eta nulua da behe-mailakoetan).

Telelana egin duten pertsonen batez beste 1,8 egun eman dituzte astean telelanean, eta oso modu positiboan baloratu dute lan modalitate horrekin duten esperientzia: 10etik 8,1 puntu batez beste.

5. TAULA

Telelanean intzidentziak sexuaren eta adin-taldearen arabera.
2023. urtea (%)

	Telelana egin duten okupatuak	Telelana egin ez duten okupatuak, nahiz eta beren lanak telelana egiteko aukera emango liekeen	Telelana egin ez duten okupatuak, beren lanak telelanean aritzeko aukerarik emango ez liekeelako	Telelanean batez besteko egun-kopurua	Batez besteko balorazioa
Guztira	12,9	18,4	68,8	1,8	8,1
Sexuaren arabera					
Gizonak	14,5	15,0	70,4	1,7	7,8
Emakumeak	10,9	22,3	66,8	1,8	8,5
Adin taldeak					
16-24	7,3	30,7	62,0	1,5	8,0
25-34	14,5	15,9	69,7	1,2	7,1
35-44	21,2	16,9	61,9	2,0	9,0
45-54	10,3	23,5	66,2	1,7	7,9
55-64	8,0	13,7	78,3	2,2	7,7
65-74	17,6	0,0	82,4	1,0	9,0
Ikasketak					
Ikasketarik gabe/Ez du erantzun	0,0	0,0	100,0	-	-
Lehen mailako ikasketak	0,0	1,1	98,9	-	-
Bigarren mailako ikasketak	4,9	15,0	80,0	1,3	7,5
Goi-mailako ikasketak	24,0	25,3	50,7	1,9	8,2

16 eta 74 urte arteko biztanleria okupatuaren ehunekoak.

Iturria: Geuk egina, IKTen eta familien inkestako datuetan oinarrituta. (EIN).

(1) Telelana urrutiko lana da, bitarteko eta sistema informatikoak, telematikoak eta telekomunikazioak esklusiboki edo lehentasunez erabiliz egiten dena. Lana modu ez-presentzialean egiten da bulegoetatik kanpo, eta etxetik bertatik, coworking zentroetan, aire zabalean... Internetarako konexio bat dagoen lekuan egin daiteke. Gainera, pertsona bat okupatuzat jotzen da baldin eta hark hala hautematen eta adierazten badu.

Telelanean bilakaerari dagokionez, telelana egin duten 16 eta 74 urte arteko okupatuaren ehunekoak 2,4 puntu igo da 2022arekin alderatuta. Aldiz, telelana egiteko aukera duten pertsonen ehunekoak % 18,4ra jaitsi da 2023an, eta % 25,2 2022an.



Merkataritza elektronikoa

Azken 12 hilabeteetan Interneten sartu diren pertsonen % 77,6k erosketa elektronikoren bat egin dute. Internet bidez erosketaren bat egin duten pertsona guztien % 76,2k azken hiru hilabeteetan egin dute, % 16,4k duela hiru hilabete baino gehiago eta duela urtebete baino gutxiago, eta % 7,5ek duela urtebete baino gehiago.

Maiztasun handiena 35 eta 44 urte arteko adin-taldean dago (pertsona horien % 93,5ek erosi dute azken hiru hilabeteetan), eta 65 eta 74 urte arteko taldea da 2022arekin alderatuta gorakada handiena izan duena (azken urtean baino 9,5 puntu gehiago).

Azken hiru hilabeteetan egindako erosketa-formatu motari dagokionez, azken hiru hilabeteetan Internet bidez erosi duten pertsonen % 97,4k produkturen bat formatu fisikoan erosi dute, % 78,1ek online harpidetza edo deskargaren bat egin dute eta % 61,6k zerbitzuren bat kontratatu du etxerako, garraiorako edo ostaturako.

Internet bidez gehien erosi diren produktuak izan dira Arropa, oinetakoak edo osagarriak (% 72,7), Edertasun- edo ongizate-.produktuak (% 36,7), Jatetxeen entregak, janari lasterra, cateringa (% 36,1) eta Altzariak eta etxerako osagarriak (% 35,8).

Azken hiru hilabeteetako online harpidetzei edo deskargei dagokienez, nabarmentzen dira Kultura-ekitaldietarako sarrerak (% 49,3), Streaming bidezko filmak edo telesailak (% 29,4), Software eta eguneraketen deskargak (% 22,8) eta Streaming bidezko musika edo deskargak (% 21,8).

Azken hiru hilabeteetan Internet bidezko zerbitzuren bat kontratatu duten pertsonen % 29,2k *Ostatu-zerbitzuren bat* kontratatu zuten eta % 24,1ek *Garraio-zerbitzuak*.



6. GRAFIKOA

Azken 3 hilabeteetan Internet bidez erositako produktu mota 2023. urtea (%)



Iturria: Geuk egina, IKTen eta familien inkestako datuetan oinarrituta. (EIN).

Bestalde, azken hiru hilabeteetan Internet bidez erosi duten pertsonen % 78,1ek produktu edo harpidetzaren bat deskargatu dute, % 49,3k *Kultura-ekitaldietarako edo bestelakoetarako sarrerak (zinema, kontzertuak, azokak)* erosi dituzte, % 29,4k *Streaming bidezko filmak edo telesailak*, % 22,8k *Softwarea (eguneraketak barne)* eta % 21,8k *Streaming bidezko musika edo deskargak*.

Azken hiru hilabeteetan Internet bidez egindako erosketek aukera ematen dute munduko edozein lekutan erosketak egiteko, baina pertsona gehienek Espainiako denda edo atarietan egin dituzte erosketak (% 94,7), ondoren datoz Europar Batasunekoak (% 35,2), munduko gainerako tokietakoak (% 30,4) eta, azkenik, jatorri ezezagunekoak (% 18,9).




Azken hiru hilabeteetan, Internet bidezko erosleen % 33,6k adierazi dute denboraldi horretan 3-5 aldiz erosi dutela, eta % 77,4k adierazi dute 500 euro baino gutxiago gastatu dituztela erosketan horietan.

Bilakaera eta Espainiarekiko konparazioa

2011tik 2023ra bitartean igo egin da Interneteko erabiltzaileen ehunekoa eta haien erabilera-maiztasuna, baina ehuneko puntu bat jaitsi da azken hiru hilabeteetan Internet bidez erosi duten pertsonen ehunekoa.

7. GRAFIKOA

IKT erabiltzaileen bilakaera, erabilera-motaren arabera
2006-2023 bitartean (%)



Iturria: Geuk egina, IKTen eta familien inkestako datuetan oinarrituta. (EIN).

Nafarroako biztanleriak informazioaren eta komunikazioaren teknologiei ematen dizkien erabileren emaitzak gainerako erkidegoekin eta Espainia osoarekin alderatuz gero, ikus daiteke Nafarroako biztanleria Estatuko batez bestekoaren gainetik dagoela azken hiru hilabeteetan Internet bidez erosi duten pertsonen ehunekoan, azken hiru hilabeteetako Interneten erabileran eta Interneteko erabiltzaileen ehunekoan.



6. TAULA

IKTen erabilera autonomia-erkidegoen arabera 2023. urtea (%)

	Internet erabili dute azken 3 hilabeteetan	Internet egunero edo ia egunero erabili duten pertsonak	Azken 3 hilabeteetan erosi dute
Nazionala guztira	95,4	90,0	55,9
Andaluzia	94,8	88,7	55,4
Aragoi	95,5	88,4	56,1
Asturiasko Printzerria	95,4	87,3	51,3
Balears, Illes	97,2	92,8	57,7
Kanariak	96,2	89,5	43,8
Kantabria	93,7	87,1	54,8
Gaztela eta Leon	94,2	88,0	52,0
Gaztela-Mantxa	94,3	88,2	52,7
Katalunia	96,8	92,9	60,0
Comunitat Valenciana	94,8	89,4	56,0
Extremadura	90,9	84,4	52,8
Galizia	92,2	85,9	51,0
Madrilgo Erkidegoa	97,4	93,5	62,1
Murtziako Eskualdea	96,2	89,4	52,0
Nafarroako Foru Komunitatea	96,0	90,3	57,1
Euskal Autonomia Erkidegoa	95,3	88,5	55,7
Errioxa	93,7	88,4	49,1
Ceuta	94,6	90,7	38,1
Melilla	99,3	96,6	63,9

Iturria: Geuk egina, IKTen eta familien inkestako datuetan oinarrituta. (EIN).

Oharra: Koloreek Nafarroako egoera adierazten dute batezbesteko nazionalarekiko (berdez batezbestekotik gora eta gorri batezbestekotik behera).



75 URTE ETA GEHIAGOKO PERTSONAK

74 urtetik gorako pertsonen % 33,7k erabili dute Internet azken hiru hilabeteetan, eta 2022an, berriz, % 27,5ek.

% 24,9k egunero erabili dute Internet (% 17,0k 2022an), eta % 8,3k online erosi dute azken hiru hilabeteetan (% 5,3k 2022an).

74 urtetik gorakoek azken hiru hilabeteetan gauzatutako online jardueren artean, nabarmentzekoa da honako hauen erabilera: *WhatsApp motako komunikazio-aplikazioak, bai berehalako mezularitzakoak* (% 29,7), bai *Telefonoz deitzekoak edo Internet bidezko bideodeiak egitekoak* (% 20,9). % 20,6k *Prentsa eta gaurkotasuneko aldizkariak irakurri zituzten* eta % 17,4k *Mezu elektronikoak jaso edo bidali zituzten*.

10 ETA 15 URTE ARTEKO HAURRAK

Informazioaren teknologien erabilera-proportzioa, oro har, oso handia da 10-15 urteko biztanleen artean. Horrela, azken hiru hilabeteetan adingabeen artean **ordenagailuaren** erabilera % 98,5era iritsi da, 2022an baino ehuneko 3 puntu gehiago, eta % 97,5ek azken hiru hilabeteetan **Internet** erabili dutela adierazi dute. Hala, aurreko urtearekin alderatuta ia ehuneko bi puntu igo da erabilera (ehuneko horiek etxetik erabiltzeari dagozkio). Bestalde, 10 eta 15 urte arteko biztanleen % 64,3k **telefono mugikorra** dute.


Bilakaera eta Espainiarekiko konparazioa

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, 2011z geroztik, ia haur guztiek erabiltzen dute ordenagailua eta Internetera sartzen dira. Aldiz, iazko datuekin alderatuta, ehuneko puntu bat igo da telefono mugikorraren eskuragarritasuna.



8. GRAFIKOA

IKT erabiltzaileen bilakaera, erabilera motaren arabera
2011-2023 bitartean (%)



Iturria: Geuk egina, IKTen eta familien inkestako datuetan oinarrituta. (EIN).

Erkidegoetako emaitzak eta Espainia osokoak alderatuz gero, Foru Komunitateko 10 eta 15 urte bitarteko haurrek, telefono mugikorraren eskuragarritasunean izan ezik, Estatuko batez bestekoa baino ehuneko handiagoak dituzte.



7. TAULA

10 eta 15 urte arteko IKT erabiltzaileak autonomia-erkidegoen arabera 2023. urtea (%)

	Ordenagailua/tableta erabiltzen duten haurrak (azken 3 hilabeteak)	Internet erabiltzen duten haurrak (azken 3 hilabeteak)	Telefono mugikorra duten haurrak
Nazionala guztira	93,1	94,7	70,6
Andaluzia	86,9	92,7	74,1
Aragoi	88,6	87,4	66,9
Asturiasko Printzerria	96,5	93,9	71,9
Balears, Illes	94,2	97,2	75,2
Kanariak	91,3	93,2	69,9
Kantabria	94,1	84,7	66,2
Gaztela eta Leon	94,0	95,0	66,9
Gaztela-Mantxa	91,1	93,3	70,9
Katalunia	95,7	95,7	68,8
Comunitat Valenciana	96,3	94,6	73,3
Extremadura	93,1	92,8	85,9
Galizia	94,7	97,6	69,3
Madrilgo Erkidegoa	94,9	98,6	66,4
Murtziako Eskualdea	93,7	95,2	70,4
Nafarroako Foru Komunitatea	98,5	97,5	64,3
Euskal Autonomia Erkidegoa	94,5	92,1	68,9
Errioxa	99,1	89,9	82,5
Ceuta	100,0	94,6	89,2
Melilla	78,0	96,3	57,4

Iturria: Geuk egina, IKTen eta familien inkestako datuetan oinarrituta. (EIN).

Oharra: Koloreek Nafarroako egoera adierazten dute batezbesteko nazionalarekiko (berdez batezbestekotik gora eta gorri batezbestekotik behera).





OHAR METODOLOGIKOA

Etxeetako informazioaren eta komunikazioaren teknologien ekipamenduari eta erabilerari buruzko inkesta (IKT-E) Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) egin du. Inkestak Europar Batasuneko Estatistika Bulegoaren (Eurostat) metodologia-gomendioei jarraitzen die, eta, bere klasean, Batasuneko kide diren herrialdeen artean ez ezik, nazioarteko beste eremu batzuetan ere konparagarriak diren datuak dituen iturri bakarra da.

IKT-E inkestaren helburua informazioaren gizartearen garapenari eta bilakaerari buruzko datuak lortzea da. Horren barruan sartzen dira etxeko IKT ekipamendua (telefonoa, ekipamendu informatikoa, Internetarako sarbidea) eta Interneteko eta merkataritza elektronikoko etxebizitza horietako egoiliarren erabilera. Teknologia berrien erabileraren alderdi gehiago aztertzeko, galdetegia dinamikoa da, eta aldizkakotasun desberdineko atal berriak biltzen ditu.

Eurostaten datuekin konparagarritasun handiagoa lortzeko, emaitzak 16 eta 74 urteko pertsona bat gutxienez bizi den etxebizitzetara eta adin-talde bereko pertsonetara buruzkoak dira. Hala ere, adingabeei (10 eta 15 urte artean) eta 75 urte edo gehiagokoei buruzko informazio gehigarria jasotzen da.

- **Eragiketa-mota:** laginketa bidezko urteko estatistika.
- **Biztanleria-esparrua:** inkestak familia-etxebizitza nagusiak eta elkarrizketa egin zen unean bertan bizi ziren pertsonak ikertzen ditu.
- **Esparru geografikoa:** lurralde nazional osoa, autonomia-erkidego bakoitzerako lagin adierazgarriekin.
- Datuen erreferentzia-aldia: urte naturala.
- **Informazioaren erreferentzia-aldia:** aldi desberdinak (12 hilabete, hiru hilabete...) elkarrizketa egin aurreko denbora-tarteari dagozkio.
- **Laginketa-mota:** Trietapiko estratifikatua. Lehen etapako unitateak zentsu-sekzioak dira. Bigarren etapako unitateak familia-etxebizitza nagusiak dira. Hirugarren etapan, etxebizitza



bakoitzeko 15 urtetik gorako pertsona bat aukeratzen da. Era berean, etxebizitzako 6 eta 15 urte arteko adingabe guztiei buruzko informazioa lortzen da. Azterketa 624 etxebizitzako lagin eraginkor baten gainean egin da (16 eta 74 urte arteko gutxienez kide bat duten etxebizitzatan).

- **Biltzeko metodoa:** pandemiaren ondorioz, telefonoz jasotzen saiatu gara WEB galdetegiari erantzuten ez dion lagin osoari egin behar izan zaizkion elkarrizketa pertsonalak.

Txostenak hiru kapitulu bereizi ditu:

- ✓ Lehenengo zatian, “Etxeak” izenekoan, Nafarroako etxeetako teknologia berrien ekipamendu-mailari buruzko informazioa jasotzen da, baita ekipamenduen (hala nola telebistaren, ordenagailuen edo telefonoaren) eskuragarritasunari buruzkoa ere.
- ✓ Bigarren zatian (“Biztanleria”), azaltzen da familia-etxebizitzetan bizi diren 16 eta 74 urte arteko Nafarroako biztanleek ekipamendu horiek zenbateraino eskuragarri dituzten eta erabiltzen dituzten.
- ✓ Hirugarren zatian (“75 urte eta gehiagoko pertsonak”), IKT produktuen erabilerari buruzko informazioa jasotzen da, adin-tarte horretako pertsonari dagokienez.
- ✓ Azken zatian “10 eta 15 urte tarteko haurrak”, ordenagailuaren eta Interneten erabilerari eta mugikorra edukitzeari buruzko azterketa bat egiten da, 16 eta 74 urte arteko gutxienez pertsona bat duten familia-etxeetan bizi diren 10 eta 15 urte bitarteko haurrei dagokienez.



INFORMAZIO GEHIAGORAKO

Nastat

Etxeetan informazioaren eta komunikazioen teknologiak eta merkataritza elektronikoa erabiltzeari buruzko inkesta. 2023. urtea



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

